

Maria: Jaiotza (irailaren 8a)

Paulo VI.ak, «Marialis Cultus» entziklikan (1974) eskatu digu, bila ditzagula giltza berriak Mariaganako debozioaz hitz egiteko. Honek, eguneko liturgiara hurbilagotzera eragiten digu.

1.-Mezako lehen otoitzean, Kolektan, otoiztuko dugu, Maria bitarteko delarik hartuko ditugula Kristoren salbazioaren hasikinak. Gaurko jai honen muina, beraz, Kristo da. Kristo digu eman eta ematen Andre Maria, bere modura, modu bere batean.

Orduen Liturgian otoizten dugu: «Andre Mariaren jaiotza ospatzen dugu; beraren Seme Jesu Kristo, Jauna, adoratzeko dugu».

2.-Ospakizunean, Laudesetan, Benedictus-en antifonan diotsogu: «Zure jaiotzak, Jainkoaren Ama, poza iragarri dio mundu osoari. Zugandik jaio zen zuzentasun-eguzkia, Kristo gure Jainkoa, madarikazioa deseginez, bedeinkazioa ekarri ziguna eta, heriotza garaituz, betiko bizia eman ziguna».

Mariaren jaiotzarekin, «goitiko jaiotzen» aroa hasi da. Mariaren jaiotzarekin, Kristoren Espirituaz jaio berri den jendetza handiaren aroa hasi da. Horietako naiz, ni, zara zu, dira...

3.-Lehen otoitzaren, Kolektaren, bukaeran «bakea handitu dezala» eskatuko dugu. Kristoren bakea. Zuzentasunean, maitasunean, solidaritatean... oinarritua den bakea. Jainkoaren Erreinuko bakea.

4.-Bezperetako 2. antifonan Andre Mariaren apaltasuna goresten dugu: «Gaur Andre Maria santuaren jaiotza da, haren edertasuna eta apaltasuna atseginez hartu dit Jainkoak». «Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu» (Lukas 10,21)

5.-Jaunartze ondoko otoitza: gonbita da Elizarentzat, Andre Mariaren jaiotzan gozatu bat har dezan, jaiotza hori munduarentzat esperantza izan delako eta salbazioaren egunsentia.

6.- «Marialis cultus-ek» dio, Andre Mariaren Jaiotzaren jai hau gertaera salbatzaileen ospakizunetako bat dela, «zeinetan Andre Maria estu loturik bizi baitzen bere Semeari». Bai. Andre Maria jaiotzea salbazio-egintza izan da munduarentzat. Andre Maria ama Jesus semeari lotu-loturik ageri da bere semeari. Eguberrietako argiaren egunsenti da Maria.

7.-Laburpena. Andre Maria:

- salbazioaren hasikina,
- pozaren iragarpena,
- Espirituaren araberako, goitiko jaiotzen aroaren hasiera,
- pozaren handitzea,
- Jainkoaren atsegin den apaltasuna,
- gure esperantza.

Eskerrak Jainkoari. Zorionak, Jesus, horrelako ama izan duzula. Zorionak, Espiritu Santua, zure argi onartzeko, Andre Mariarena bezala bihotz belakia aurkitu duzulako.

Zorionak, Andre Maria, zeruko Aitaren maitasunari antzeman eta haren meneko agertu zarelako, aingeruak iragarritako Espirituari bihotza ireki diozulako, munduaren Jesus salbatzailearekin bat eginez, mundu guztiaren salbazioan parte hartu duzuelako.

Zorionak mundu guztiari, horrelako Aita, horrelako Salbatzailea, horrelako Espiritua, horrelako Ama izateko zoria duelako.

Dionisio Amundarain